reas

2026 kanpaina

# NABEGAZIO TUTORIALA
# AUDITORIA/BALANTZE SOZIALA

REAS RED AUDITORIA ETA BALANTZE SOZIALen BTZORDEA




reas redes de economía alternativa y solidaria

mercado Social

*reas

# AUDITORIA/BALANTZE SOZIALA EGITEKO TUTORIALA

REAS Red-eko Balantze eta Auditoria Sozialen Batzordea

## 2026ko Kanpaina

Auditoria/Balantze Soziala egiteko urratsak:

1. Tresna informatikora sartu
2. Erregistratu (erabiltzailea oraindik ez baduzu)
3. Auditoria/Balantze Sozialaren datuak betetzen hasi
4. Itxi, galdetegia bukatu
5. Dokumentu eta infografien balioztatzea eta eskuratzea

## 1. Tresna informatikora sartu

Lurralde guztietako, sartzeko URLak hauek dira:

- **https://ensenyaelcor.org**
- **https://ensenaelcorazon.org/**
- **https://bihotzaerakutsi.org/**
- **https://ensinaocorazon.org/**




Pasahitza zein den gogoratzen ez baduzue edo lehen aldiz sartzen bazarete, «Pasahitza berreskuratu» botoia sakatu behar duzue.

Horrek elkarrizketa-kutxa bat irekiko dizue, azpian erakusten den bezala. Posta elektronikoa bete behar duzue, mezu oker bat jartzen baduzue, aplikazio berak esango dizue. Ez baduzue gogoratzen zein helbide dagoen erregistratuta, ensenaelcorazon@reas.red helbidera idatzi eta jakinaraziko dizuegu.

Pasahitza berreskuratzea eskatzen duzuenean, posta elektroniko bat iritsiko zaizue, pasahitza berrezartzeko kanpo-esteka batekin.




## 2. Erregistratzea (erabiltzailea ez baduzue)

Lehen aldiz erregistratzeko, «Sortu kontua» botoia sakatuko dugu. Pantailaren tamaina oso txikia bada, bistaratzeko arazoak izan ditzakezue. Pantaila murriztea gomendatzen dizuegu, «Kontrola –» sakatuta.

Hurrengo pantaila zabalduko zaizue, eta izartxoarekin (*) seinalatuta dauden datuak bete beharko dituzue. Gogoratu garrantzitsua dela kalitate oneko logo bat igotzea, orriak sortuko dituen dokumentuetan erabiliko dena.



Erregistro-inprimakiak, azpian ikus dezakezuen bezala, erakundearen oinarrizko datu batzuk eskatzen ditu. Bi alderdi dira bereziki garrantzitsuak:

- Inpaktua neurtzeko metodoa: erakundeak aukeratu ditzakeen moduluak agertzen dira, dagokion autonomia-erkidegoaren eta, batzuetan, forma juridikoaren arabera. Metodo bat hautatzean, automatikoki bidaltzen du hura kudeatzen duen sarera sartzeko eskaera.




- Emaitzak publiko egin nahi ditut: baldintza hori onartuz gero, REAS Red de Redes sareko balantze eta auditoria sozialen batzordeari aukera emango diozue balantze sozialaren infografia indibiduala argitaratzeko, zehazki, Merkatu Sozialaren orrian.




Behin eskaera bidalita, sareak zuen erregistroa onartuko du eta helbide elektroniko bat jasoko duzue pasahitza sortzeko esteka batekin. Orduan dena prest izango duzue zuen kudeaketa-arlora sartzeko.

# 3. Auditoria/Balantze Sozialaren datuak betetzen hasi

Hasierako orrian, harremanetarako datuak kontsultatzeko eta aldatzeko atal bat ikusiko duzue. Gainera, zuen sarearen auditoretza/balantze soziala aurkituko duzue.




Garrantzitsua da ataleko informazioari arreta jartzea, Merkatu Sozialaren katalogoan aterako dena baita, bereziki:

- Logoa.
- Deskribapena.
- Probintzia/Eskualdea/Herria.
- Sektorea/azpisektorea

Goiko eskuineko ertzean klik egin eta pantaila batera joan zaitezkete. Bertan, profila aldatu eta pasahitza aldatu ahal izango duzue.

Auditoretza/balantze soziala betetzean sartzeko, "joan balantzera" botoiaren gainean klikatu behar duzue.




Auditoretza/Balantze soziala 6 informazio-bloke handik osatzen dute:

- Datu orokorrak
- Ekonomia eta irabazi-politika
- Ekitatea eta demokrazia
- Ingurumen-jasangarritasuna
- Ingurunearekiko lankidetza eta konpromisoa
- Lana

Ezkerraldean blokeak ikusiko dituzue, eta haietan nabigatzen joan zaitezkete kutxatxoetan klik eginez. Garrantzitsua da galderak blokeek duten ordenan erantzutea, hurrengo multzoetako galderak baitaude, datu orokorren erlaitzean emandako datuen arabera.




Datu-bilketa errazteko galdera guztiekin batera, informazio-botoi bat aurkituko duzue. Sakatuz gero, laguntza-leiho bat irekiko da, zer datu eskatzen diren eta non aurki daitezkeen azaltzeko (informazio hori Galderen Gidan ere eskuragarri duzue, hemen eska dezakezue: ensenaelcorazon@reas.red). Aurreko ekitaldietan Auditoretza/Balantze Soziala egin baduzue, adierazle bakoitzerako, datuen sarrera-eremuan, grisez, aurreko urtean jarri duzuen datua agertuko zaizue. Horrela, erreferentzia bat duzue eta bilakaeraren lehen ebaluazio bat egin dezakezue.

Bloke bakoitzaren amaieran, eman duzuen informazioa «Gorde» botoia duzue. Ez da beharrezkoa gordetzeko bloke bat amaitzea, nahi duzuenean irten eta sartu zaitezkete, eta jarritako informazioak gordeta jarraituko du.

*reas

## 4. Galdetegia itxi eta bukatu

Hasierako orrian Auditoria/Balantze sozialaren aurrerapena aurki dezakezue. Atalaren laburpena ikus dezakezue, zenbat dauden osatuta, prozesuan eta egiteke, aurrerapen-barra baten bidez, egindako galderen ehunekoa bistaratzeaz gain.




Galdera guztiak erantzunda daudenean eta baliozkotzea zuzena denean, zuen datuak zuen sarera bidal ditzakezue, beheko ezkerreko marjinan bidaltzeko botoia sakatuta.



Ekintza hau egitean, ezin izango dituzue datuak editatu, eta zuen sareak sartutako datuak baliozkotuko ditu. Sartutako datuei buruzko kontsultaren bat balego, sarea zuekin harremanetan jarriko litzateke.

## 5. Dokumentu eta infografien balioztatzea eta eskuratzea

Auditoria/balantze bat itxita dagoenean, ez dira automatikoki lortzen emaitzen dokumentuak, ezta infografia ere, lehenik eta behin datuak baliozkotzen ditugulako. Baliozkotzeak amaitzean, posta elektronikoz jakinaraziko dizuegu, eta, ondoren, erantzunak eta emaitzak dituzten dokumentuak izango dituzue DOKUMENTUAK atalean, orriaren goiko aldean.




Informazio geihagorako:
ensenaelcorazon@reas.red
**https://reas.red/auditoria-balance-social/**
**https://www.mercadosocial.net/**

Eskerrik asko zure konpromiso eta gardentasunagatik. Horrela, ekonomia sozial, jasangarri eta solidarioago hori ikusarazten dugu.

reas